

15. IKASGAIA

HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

Laburpena

1. SARRERA
2. KONKURTSO-DEKLARAZIOA
 - 2.1 Auresupostu objektiboa: zordunaren kaudimengabezia
 - 2.2 Konkurtso-eskaera
 - 2.3 Konkurtsoaren deklarazioa
3. KONKURTSOAREN ADMINISTRAZIOA
4. KONKURTSOAREN ONDORIOAK
 - 4.1 Zordunaren gaineko ondorioak
 - 4.2 Hartzekodunen gaineko ondorioak
 - 4.3 Kredituen gaineko ondorioak
 - 4.4 Kontratuen gaineko ondorioak
 - 4.5 Masa aktiboa
 - 4.6 Masa pasiboa
5. KONKURTSOAREN KALIFIKAZIOA
6. KONKURTSOA AMAITZEKO BIDEAK
 - 6.1 Hitzarmena
 - 6.2 Likidazioa

1. SARRERA

Lehen konkurtso prozedura bakar bat izan ordez lau prozedura desberdin zeuden: *kiebra* eta *ordainketen etendura* (Merkataritzako Zuzenbidean), *konkurtsoa* eta *kita* eta *itxarotea* (Zuzenbide zibilean). Baina 2003 geroztik prozedura bakarra dago lege berezia duena: *Ley 22/2003, de 9 de julio, concursal*.

Zorduna kaudimenduna denean bere hartzekodunen kreditu-eskubideak babesteko neurri batzuk daude. Printzipioz, hartzekodun bakoitzaren aurrean

zordunak oraingo eta etorkizuneko ondasunekin erantzungo du (KZ 1911); hartzekodunek, subsidiarioki bada ere, ezeztapeneko akzioa (*acción revocatoria*) erabil dezakete euren eskubideari iruzur eginez zordunak gauzatu dituen egintzak ezezteko (KZ 111 art.); titulu exekutiboren bat baldin badute, akzio exekutiboaz baliatu daitezke eta, bere kasuan, baita akzio ganbariantaz ere. Hau da, hartzekodun bakoitzak bere kreditu-eskubidea kobratzeko dagokion akzioa jarri ahal izango du zordunaren aurka.

Baina zorduna kaudimengabea bada, egoera erabat aldatzen da. Hartzekodun anitz baldin badira, hauek ezin izango dute indibidualki jardun, horrek batzuk kreditu-eskubidea osoki kobratzea eta beste batzuk ezer ez kobratzea ekarriko lukeelako. Ondorio ezezkor hau saihesteko dago hartzekodunen konkurtsoa. Akzio indibidualak erabili ordez prozedura kolektibo bat bideratzen da, *par conditio creditorum* printzipioan oinarritua, hartzekodunei nolabaiteko berdintasunezko tratua emango diena jasan beharko dituzten galeren aurrean.

Konkurtsoprozeduraren helburuak justiziazko arazoietan oinarritzen dira. Batetik, hartzekodun batzuk (zordunaren gertukoak, senitartekoak, lagunak, informatuenak, azkarrenak) kredituak osoki kobratzea eta beste batzuk ezer ere ez jasotzea ekidin nahi da. Bestetik, zordunaren masa aktiboa birrosatzen ahalegintzen da eta horretarako konkurtsoa deklaratu aurretik hartzekodunen kalterako zordunak burututako egintzak hutsaltzeko akzioa (*acción de rescisión*) jartzea ahalbidetzen du (LC 71 art.). Gainera, konkurtsoa erruduna kalifikatu ezker, posible egiten du kaudimengabezia sortu edo areagotu zutenei kalteordaina galdatzea (LC 172.2.3 art.).

Konkurtsoa jurisdikzio zibileko prozedura bat da eta merkataritzako epaitegietan gauzatzen da, zordunak bere interes nagusien gunea duen lurraldeari dagokion epaitegian (LC 8 art.). Oro har, prozedura honek bi zati ditu: lehena, masa aktiboa eta pasiboa zehaztea eta, bigarrena, hitzarmena egitea ala likidatzea. Dena den, badago konkurtso laburtua ere, prozedurazko epe laburragoak dituen eta administrazio-organuan pertsona bakarra (LC 190, 191 art.). Baina ez dira konkurtsoak berfinantzaketarako akordioak (LC 5.bis.1 eta 4. Xedapen gehigarria). Akordio hauen helburua, hain zuzen, konkurtsoa galeraztea da, zailtasunak dituen enpresarentzat beste irtenbide bat bilatzea. Hartzekodunen gehiengoaren akordioa behar izaten da enpresarentzat bideragarritasunezko plangintza onartzeko epe ertainean behintzat jarraipena izan dezan. Plangintza horrek gainera legeak ezarritako zenbait baldintza bete

behar ditu (hartzekodunen gehiengoa, adituaren txostena, dokumentu publikoa). Era horretan akordioa bera eta bere inguruko egintzak ezin izango dira hutsaldu (*rescindir*).

Azkenik, esan behar da, konkurtso-legearen alboan badirela beste arau berezi batzuk. Batetik, arau bereziak daude zenbait sektore ekonomikotako enpresen krisi-egoeratarako, hauek gizartean izan ditzaketen ondorioak direla eta. Hala da kreditu-erakunde, inbertsiontako zerbitzuen enpresa eta aseguru-etxeen kasuan. Bestetik, aipatu behar da ere geroz eta gehiago direla nazioarte-mailan ondorioak eragiten dituzten kaudimengabezi-egoerak. Kasu horietarako erreferentziakoak dira *Nazio Batuen Nazioarteko Merkataritza-Zuzenbideko Batzordearen Lege Eredua* eta, Europar Batasunean, (CE) 1348/2000 *Erreklamendua, Kontseiluarena, maiatzaren 29koa, kaudimengabeziako prozedurei buruzkoa*.

2. KONKURTSO-DEKLARAZIOA

2.1. Aurresupostu objektiboa: zordunaren kaudimengabezia

Konkurtsoa deklaratzeko aurresupostu objektiboa zordunaren kaudimengabezia da eta hori gertatzen da galdagarri zaizkion obligazioak erregularitasunez *ezin dituenen bete* (LC 2.1 art.). Ezintasun horren berri zordunak izango du inork baino hobeto. Hori dela eta, aurresuposturik baden zehazteko, bi egoera bereizten ditu legeak. Konkurtso-eskaera zordunak aurkezten duenean (*borondatezko konkurtsoa*), berak justifikatu beharko ditu bere zorpetzea eta kaudimengabezia, oraingoa edo hurbilekoa, ikusten badu aurki ezin izango dituela bere obligazioak bete (LC 2.3 art.). Baina konkurtso-eskaera hartzekodun batek ere egin dezake (*nahitaezko konkurtsoa*). Horretarako ez du zordunaren kaudimengabezi-egoera frogatu beharrik izango, legeak aipaturiko gertakariaren batetan oinarrituko da. Kaudimengabeziatzko presuntzioak dira (LC 2.4 art.):

- Zordunaren kontrako enbargua exekutatzea eta zorra odaintzeko ondasun nahikorik ez izatea
- Zordunak oro har obligazioak ordaintzeari uztea
- Zordunaren jabe goan modu orokorrean eragina duten enbarguak egotea exekuzioaren zain
- Zordunak bere ondasunen altxamendua edo likidazio ruinosoa egitea

- Oro har, zenbait obligazio-mota betetzeari utzi izana konkurtso-eskaera aurreko hiru hilabetetan: zergak, Gizarte-Segurantzako kuotak, langileen soldatak eta ordainsariak.

Kaudimengabeziaren zeinu hauen ondorioz, hartzekodun batek konkurtsoa irekitzea eskatzen badu eta hala egiten bada, prozedurak aurrera jarraituko du zorduna benetan kaudimengabezi-egoran baldin badago, bestela ez (LC 18.2 art.). Ez badago, hartzekodunak exekuzio singularrera jo beharko du.

2.2. Konkurtso-eskaera

Deklarazio judizialik gabe ez dago konkurtsorik eta, gainera, epaileak ez du konkurtsoa ofizioz deklaritzen, fiskalak ere ez du eskatzen. Norbaitek eskatu behar du: borondatezko konkurtsoaren kasuan zordunak (edo sozietatearen administratzaileek edota bazkideek, sozietateko zorren erantzule badira, ik. LC 3.1 eta 3.3 art.) eta nahitaezko konkurtsoaren kasuan edozein hartzekodunek (LC 3.1 art.). Konkurtso-deklarazioa eskatzeko formaltasunak bete eta dokumentu batzuk aurkeztu behar dira, esate baterako: inbentarioa, hartzekodunen zerrenda, bilakaera ekonomiko eta juridikoaren txostena, bere kasuan, kitapenerako plana, e.a. (LC 6, 7 eta 2.4 art.).

Zordunak konkurtsoa eskatzeko obligazioa du eta horretarako bi hilabete ditu bere kaudimengabezi-egoera ezagutu zuenetik edota ezagutu behar zuenetik (LC 5.1 art.). Obligazio hau ez betetzeak ondorio gogorak ekartzen ditu: ezingo du aurretiaz hitzarmenerako proposamenik aurkeztu (LC 105.1.6 art.); dolo edo erru astuna presumituko da eta konkurtsoa errudun kalifikatuko da (LC 165.1 art.); sozietate anonimo eta erantzukizun mugatuko sozietateetako administratzaileek sozietatearen zorren gaineko erantzukizun solidarioa izango dute (LSC 365, 366 art.).

2.3. Konkurtsoaren deklarazioa

Konkurtso-zuzenbidea, neurri handi batetan, zuzenbide prozesala da. Prozesuko epailea merkataritzako epailea izango da, zordunak bere interes nagusiak dituen lurraldeari dagokiona (LC 10.1 art.). Konkurtso-deklarazioa epailearen AUTO bidez egiten da. Borondatezko konkurtsoan (obligatorioa) epaileak zordunak aurkeztutako dokumentuak ikuskatu ondoren autoa emango du (LC 14 art.). Nahitaezko konkurtsoan, berriz, epaileak eskaera tramitatzea

onartuko du eta zordunari jakinaraziko dio, nahi badu, bost eguneko epean aurkapena (oposizioa) jar dezan (LC 15 art.). Aurkapenik ez badago autoa emango du baina aurkapena egiten bada, erabakiko du autoa ematea konkurtsoa deklaratuaz ala ez deklaratuaz (LC 18, 19, 20 art.) Autoaren aurka apelaziozko helegitea jar daiteke.

Konkurtsoa deklaratzeko duen autoan honako zehaztapenak jasotzen dira:

- Konkurtsoa borondatezkoa ala nahitaezkoa den, nork eskatua
- Konkurtsoko administratzailearen izendapena
- Zordunaren gaineko efektuak, bere ondasunak kudeatu eta xedatzeko
- Zordunaren ondarearen osotasuna babesteko arretazko neurriak
- Hartzekodunei deialdia, beren kredituen existentzia administratzaileei jakinarazi diezaieten
- Konkurtsoaren deklarazioari eman beharreko publizitatea (LC 23.1 art.)
- Prozedura sinplifikatua aplikatzeko komenigarritasuna, ala ez (LC 21.1 art.)

Epailak erabaki dezake prozedura sinplifikatua izatea baldintza batzuk bete ezker (LC 190, 191 art.). Kasu honetan prozedurako epeak laburragoak dira eta administratzaile bakarra izango da (ez hiru).

3. KONKURTSOAREN ADMINISTRAZIOA

Zordunak ondaretar egintzak burutzeko ahalmena mugatua izango du. Egintza hauek burutzea konkurtsoko administratzaileei dagokie eta, horretaz gain, baita beste zenbait funtzio ere: zorduna ordezkatzeko, xedapenezko egintzak burutzea galerazten zaionean, masa aktiboaren inbentarioa eta txostena egitea, hartzekodunen zerrenda egitea kredituak aztertu eta zerrendan sartzea edo ez sartzea erabakiaz, konkurtsoaren amaibidea hitzarmena denean proposamena ebaluatzea, konkurtsoaren amaibidea likidazioa denean likidazio-plana, likidatzeko egintzak eta ordainketak burutzea eta konkurtsoaren kalifikazioari buruzko txostena egitea. Honen ondoren konkurtsoaren hurrengo fasea hasiko da: hitzarmena edo likidazioa.

Funtzio hauen artean, azpimarratzakoa da administratzaileek egin behar duten txostena prozeduraren lehen zatia (masa aktiboa eta pasiboa zehaztea) amaitu eta bigarren zatia (hitzarmena ala likidazioa) hasteko. Txostenaren inguruko formaltasunak, edukia eta dokumentu osagarriak legez zehaztuta daude (LC

74, 75 art.). Txosten hau bereziki inportantea da prozeduraren garpena eta amaibidea erabakitzeko.

Oro har, hiru izaten dira, bat hartzekoduna (LC 21.2 art.) eta beste biak profesional independenteak: abokatuak (lanean ari dena eta gutxienez bost urteko esperientzia duena) eta ekonomista edo auditorea (LC 27 art.). Hauek izendatzeko mugapenak ezartzen ditu legeak zerrenda luze batetan, aukeratuak izateko ezintasun-kausak (*causas de inelegibilidad*) eta debekuak (LC 28 art.), bere kasuan ezestea (*recusación*) edota prozeduratik banantzea (*separación*) ekar dezaketenak (LC 33 eta 37 art.). Administratzaileak epailearen kontrolpean daude.

Beren lana ordaindu egiten da, konkurtsoaren bolumen ekonomikoaren eta konplexutasunaren arabera. Epaileak zehaztuko du ordainsariaren kopurua, erreglamenduz araututa dauden irizpide batzuren arabera. Ordainketa hau masa aktiboaren kontrako kreditu-eskubide bat da eta, ondorioz, beste hartzekodunen aurretik ordainduko zaie administratzaileei (LC 34 eta 154 art.). Masa nahikoa ez denean gutxienezko ordainsari bat bermatuko da, kontu babandu batetan beharrezko diren ekarpenak eginez.

Legeak beren jarduerari buruzko galdapen eta erantzukizun zorrotzak ezartzen ditu: administratzaile ordenatuaren arreta-maila, ordezkari leiala izatea eta ondorioz, masari, zordunari edota hirugarrenei sorturiko kalteengatik erantzukizuna (LC 28, 35, 36 art.). Bereziki aipagarria da masa aktiboko ondasunak eskuratzeko duten debekua eta horren inguruko ondorioak gogorak (LC 151 art.).

4. KONKURTSOAREN ONDORIOAK

4.1. Zordunaren gaineko ondorioak

Konkurtsodeklarazioaren ondorioz, zordunari bere ondareaz xedatzeko gaitasuna mugatu (interbentzioa) edo eten egingo zaio (LC 40 art.). Aurrerantzean administratzaileen onospena beharko du horretarako (interbentzio kasuan) edo administratzaileek ordezkatzeko dute zorduna (etendura kasuan), hartzekodunen interesak babestearren. Konkurtsoak ez du zordunaren jarduera ekonomikoa geldiarazten, printzipioz aurrera jarraituko du (epaileak ez badu kontrako erabakirik beharrezko ikusten) eta zordun

enpresariak dagozkion obligazioak betetzen jarraitu beharko du (urteko kontuak, auditoria, e.a.). Ondareaz xedatzeko dituen mugapenak gaindituz burututako egintzak deuseztagarriak dira (LC 40 art.). Administratzaileen eskariz deuseztatu ahal izango dira edo konfirmatu, mesedegarriak baldin badira.

Konkurto-deklarazioak zordunaren (eta bere zaintzapean dauden pertsonen) aldeko mantenu-eskubidea (*derecho de alimentos*) sortzen du, masa aktiboaren kontura, epaileak esaten duen arte. Bestalde, konkurtsoaren kalifikazioak ere, baditu bere ondorioak. Konkurtsoa epai irmo bidez *erruduna* kalifikatu ezker, zordunaren (edo bere administratzaile edo likidatzaileen) inhabilitazioa ekarriko du eta dagokion erantzukizuna (LC 172 art.).

Prozesu guzti honetan zehar zordunak administratzaileekin eta epailearekin kolaboratzeko obligazioa dauka: agerraldietara agertu, informazioa eman, kontabilitate-liburuak eta sozietateko liburuak eskura ipini, inportanteak izan daitezken dokumentuak baita ere, e.a. obligazio hauek ez betetzeak ondorio gogorrek ekar ditzake beretzat: komunikazioak interbenitzea, bizilekua edo egoitza ezartzea, bizilekuan arrestatzea, araketak, e.a.

Zorduna pertsona juridikoa izateak baditu berezitasun batzuk. Hasteko esan behar da konkurto-deklarazioa ez dela disoluzio-kausa, baina zenbait ondorio sortzen ditu bere organu eta bazkideentzako (LC 48 art.). Sozietateak *erantzukizuneko akzioa* (*acción de responsabilidad*) baliatzeko aukera dauka bere administratzaile, likidatzaile edo auditore izandakoen kontra, sozietateari sortutako kalteengatik (akzio soziala). Administratzaileak ere aktiboki legitimatuata daude akzio hau jartzeko eta epaileak, beharrezko ikusten badu, pertsona hauen ondasun eta eskubideen enbargua agindu dezake. Bazkideei dagokienez, sozietateari egin gabe daukaten ekarpena edo bestelako obligazioak betearaziko zaizkie. Baina konkurto-deklarazioak ez du esan nahi sozietatearen zorren gaineko erantzukizuna duten bazkideei ere, besterik gabe, konkurtsoa deklaratu zaienik. Hala gertatuko da, agian, bazkide bakoitzaren egoera aztertu ondoren, beren erantzukizuna subsidiarioa baita. Gainera, bazkideek sozietatearen zorren gainean duten erantzukizuna aldatu egiten da konkurtsoa dagoenean (LC 48.5 art.). Prozesuan zehar administratzaileek dute legitimazio aktiboa masa birrosatzeko beharrezko diren akzioak jartzeko.

4.2. Hartzekodunen gaineko ondorioak

Konkurtoa deklaratzek hartzekodunei berdintasunezko tratua ematea esan nahi du (*par condicio creditorum*). Horregatik, hartzekodunek jarritako akzio eta exekuzio indibidualak geldiaraztea ekartzen du, konkurtsoaren *masa* osatu ahal izateko: *masa aktiboa* (zordunaren eskubideak) eta *masa pasiboa*, hartzekodunen multzoa (LC 49 eta 84.I art.). Zordunaren kontra jarritako akzio zibiletan epaileek abstentziozko betekizuna daukate (LC 50 eta 8.1 art.). Kontentzioso-administratibo eta penal arloko epaileek, ordea, ez daukate betekizun hau, ezta lan arlokoek ere. Dena den, konkurtsoa deklarata, lan arloko akzioak modu kolektiboan konkurtsoko epailearen aurrean jarri beharko dira. Ondorioz, akzio zibilen preskripzio-epeak eten egiten dira eta berriz kontatzen hasiko dira konkurtsoa amaitutakoan (LC 60 art.).

Baina berme erreala daukatzen hartzekodunek tratamendu berezia daukate (LC 56, 57 art.). beren bermea exekutatzeko akzioak jarri edo jarraitu ahal izango dituzte, beti ere horrek ez badu ukitzen jarduera profesionala edo enpresarialari loturiko ondasunik. Bestela, ahalmen hori ere etenda geratuko da (ahalmena ontzat ematen duen hitzarmena onartu arte edo, likidaziorik hasi bage, konkurtso-deklaraziotik urte bete iragan arte).

Oraindik bereziagoa da untzi edo hegazkinen gainean kreditu pribilegiatuak dituztenen egoera. Hauek ondasun horiek konkurtsotik (masa aktibotik) banandu edo atera ditzakete, konkurtsoz kanpoko akzio bereziak erabiliaz (LC 76.3 eta MK 580 art.). Exekuzio horietatik soberakinik geratu ezker, masa aktiboa osatzeko izango litzateke.

4.3. Kredituen gaineko ondorioak

Konkurtsodeklarazioak zordunaren kontrako kredituen gainean ondorioak sortzen ditu: konpentsaziorik ezin da egin, zorrek interesak sortzeari uzten diote eta zenbait kredituentzako erregela bereziak aplikatzen dira.

Konkurtsodeklaratu ondoren ezinezkoa da zordunak dituen zorrak eta kredituak konpentsatzea (LC 58 art.). Dena den, erregela orokor honi zehaztapen bat egiten zaio: konpentsazioak efektuak izango ditu horretarako baldintzak konkurtsodeklarazio aurretik gertatu izan direnean. Konpentsazioa gai gatazkatsua da eta herrialde guztietan ez zaio konponbide berdina ematen.

Españaiko kasuan, konpentsazioa ordainketa egiteko modu bat bezala ikusten denez, debekatzea ulergarria da kontuan izanik masa aktiboa xedatzeko dagoen debeku orokorra, hartzekodunen tratu-berdinatasunaren printzipioa eta baita konpentsazioaren arau orokorrak ere (KZ 1196.5 art.). Honek badu zentzua kreditu-eskubidea eta zorra harreman juridiko desberdinen ondorio direnean. Baina ez da hain ulergarria kreditua eta zorra harreman beretik sortutakoak direnean. Kasu honetan konpentsazioa egitea onartu behar da eta *in bonis* alderdiak ez du masaren alde bere prestazioa egin beharrik izango.

Zorren interesari dagokienez ere bada erregela orokorra, alegia, konkurtso-deklarazioaren ondoren ez dira gehiago sortuko (LC 59 art.). Baina erregela honek bi salbuespen ditu: berme errealak duten kredituak eta soldatazko kredituak. Dena den, interesak sortzeari uztea ez da betirako gauza. Hitzarmena negoziatzerakoan interes guztiak edo zati bat ordaintzea adostu daiteke. Azkenik, kontuan izan behar da ere, konkurtsoa ireki ondoren, zenbait krediturentzako erregela bereziak aplikatzen direla.

Kreditu guztiak dirutan adierazi behar dira pasiboan, kurtso legaleko monetan (LC 88 art.). Horrek ez du esan nahi diruzkoak ez diren prestazioak dirutan bihurtu behar direnik. Dirutan bihurtzea eta mugaeguna aurreratzea gertatuko zaie soilik likidazio-fasean (LC 246 art.).

Baldintzapeko kredituen kasuan, baldintza suntsiarazle (*condición resolutoria*) beten menpe dauden obligazioak, baldintzagabekoak bezala tratatuko dira, baldintza betetzen ez den artean (LC 87.1 art.). Ondorioz konkurtsoan parte hartuko dute eta ordindu egin beharko dira, beti ere baldintza gertatzen ez bada. Baldintza gertatuko balitz ordainketa egin ondoren, hartzekodunak kobratutakoa masara itzuli beharko luke.

Baldintza esekitzalea (*condición suspensiva*) duten kredituak, ordea, ez dira ordainduko baldintza betetzen ez bada (LC 87.3-4 art.).

Berme pretsonala duten kredituengan konkurtsoak ez du eraginik. Kreditu-eskubideen titularrek findantza-emaila eta obligatu solidarioen kontra akzioa jarri ahal izango dute. Eskubide hauek berdin jarraituko dute baita hitzarmena eginda ere, hartzekodunek hitzarmenaren aldeko boturik ematen ez badute (LC 135 art.)

4.4. Kontratuen gaineko ondorioak

Normala da zordunak konkurtsoa deklaratu aurretik kontratuak egin izana, aldebiko kontratuak. Horren ondorioz, deklarazio-momentuan egoera desberdinak ager daitezke. Zordunak berari dagokion obligazioa bete izan badu, masa aktiboan kreditu-eskubide bat edukiko du. Aldiz, *in bonis* hartzekodunak bere obligazioa erabat bete badu, masa pasiboan kreditu-eskubidea izango du. Baina alde biek exekuzio partziala egin dutenean arazoak sortzen dira.

Erregela orokorra da konkurtso-deklarazioak, besterik gabe, ez duela konplitzear dauden elkarrekiko obligazioak dituzten kontratuengan eraginik izango (LC 61.2.I eta 3 art.). Ondorioz, konkurtsoa deklaratu arren, kontratuak indarrean jarraituko dute eta zordunak egin beharreko prestazioak masaren kontura egingo dira (LC 62.3 art.). Baina, hartzekodunak konkurtsoaren kalterako obligazioen konplimendua oztoptzen badu, kreditua *subordinatu* bezala kalifikatuko zaio (LC 92.7 art.). Edozein kasutan, konkurtsoaren interesagatik, administratzaileek eta epaileak kontratuen suntsiarazpena (*resolución*) erabaki dezakete, masari dagokion kalteordaina egotziaz (LC 62.4 art.).

Dena den, gai honen inguruan badira erregela bereziak kontratu batzuentzako: aseguruak (LCS 37 art.), agentzia (LCA 26 art.), administrazio publikoekin egindako kontratuak (LCSP 206, 207 art.), berme finantzierozko kontratuak (RDL 5/2005, martxoaren 11.koa, 15 art., 2 xed.gehig.) eta lan-kontratuak (LC 64, 65 art.).

Honekin harremana duen beste gai bat kontratuen birgaitetarena da (*rehabilitación de los contratos*, LC 68 art.). Konkurtsoa deklaratu aurreko hiru hilabetetan kuotak ez ordaintzeagatik kontratuaren mugaeguneratzea aurreratu egin bada eta erreklamaziozko akziorik ez bada jarri (ez zordunaren kontra ez eta bermatzailearen kontra ere), administratzaileek konkurtsoarentzat egoki ikusten badute kontratua birgaitzeko ahalmena daukate. Gauza bera egin dezakete epekako salmenta-kontratuen kasuan (LC 69 art.) eta baita hiritar errentamenduen kasuan ere, maizterra botatzeko akzioa (*dehaucio*) geldiaraziaz (LC 70 art.).

4.5. Masa aktiboa

Konkurtsodeklarazioaren ondorioz, zordunaren ondasunek *masa aktiboa* deituriko multzo bat osatzen dute, hartzekodunei (*masa pasiboa*) ordaintzeko. Masa aktiboa eratzen dute zordunaren ondasun eta eskubide guztiek, oraingoek eta etorkizunekoek (KZ 1911 art.), adibidez, akzioen ondorioz eskuratuko direnak (LC 76.1) edota titular moduan agertze den kontu bateratuko saldoa (LC 79 art.). Masatik kanpo geratuko dira soilik enbargatu ezin diren ondasun eta eskubideak (LC 76.2 art., LEC 605 art. e.o. Ad. bizitzeko behar dituenak, arropa, altzariak, profesioan jarduteko behar dituenak, e.a.).

Zorduna ezkondua bada, masa aktiboaren konposaketa desberdina da ezkontzako ondasun-eraentzaren arabera. Irabazpidezko eraentzaren kasuan, irabazpidezko ondasunak masan sartuko dira. Hala ere, ezkontideak irabazpidezko sozietatearen disoluzioa egitea eta irabazpidezko izaera duen ohiko etxebizitza babestea eska diezaioke epaileari, baldintza batzuk beteaz (LC 77, 78.4 art.). Ondasunen banantze-eraentzaren kasuan, zenbait presuntzio *iuris tantum* aplikatzen dira (LC 78.1,2,3 art.).

Konkurtsoko administrazioak ondasun guztien inbentarioa eta balorazioa egingo du (LC 82, 83 art.) eta baita txosten bat ere (LC 75.2 art.), interesatuek aurkatu ditzaketenak (LC 96.2 art.). Administratzaileak ondasun hauek kontserbatzeaz arduratuko dira. Ondorioz, konkurtso-prozedura amaitu arte ezin izango dituzte besterendu epailearen baimenik gabe (LC 43 art.). Masa erabat finkatuko da prozeduran zehar, zenbait eragiketa burutu ondoren. Batetik, masara ekarriko dira konkurtsoa deklaratu aurretik zordunaren ondaretik ez bidez ateratako ondasun eta eskubideak (*masaren birrosaketa*). Bestetik, masatik banandu beharko dira zordunak eduki arren bere titularitatekoak ez direnak (*masaren murriztapena*) eta baita ere konkurtso-prozedurak sortutako gastuak (*masaren kontrako kredituak, masaren zorrak*).

Masaren birrosaketa. Zordunaren krisi ekonomikoa hasten dentic konkurtsoa deklaratu arte denbora igarotzen da eta tartean ohikoa izaten da zordunak hartzekodunak kaltetzen dituzten eragiketak egitea. Hori dela eta konkurtso-prozeduran zehar *aurkatzeko akzioak (acciones de impugnación)* jarri ahal izango dira (LC 71.6 art.) eta baita akzio berezi bat ere: *hutsalketa-akzio konkurtsala (acción rescisoria concursal)*. Honekin hutsaldu ahal izango dira konkurtso-deklarazio aurreko bi urteetan masa aktiboarentzat kaltegarriak izan

diren egintzak, nahiz eta iruzur egiteko asmorik ez izan, ez zordunak ez eta beste kontratukideak ere (LC 71.1 art.). Egintza kaltegarriak identifikatzeko legeak zenbait presuntzio eta irizpide ezartzen ditu (LC 71.2, 3, 4 art.)¹.

Akzio hauek konkurtsoko epailearen aurrean jarri behar dira. Horretarako legitimazio aktiboa dute administratzaileek eta, subsidiarioki, hartzekodunek. Legitimazio pasiboa, berriz, zordunari eta ondasunak eskuratu dituzten hirugarrenei dagokie (LC 72.1-2 art.). Akzio hauen ondorioz emandako epaiaren objektua da ondasunak itzultzea beren fruitu eta interesekin, hau da, masaren alde itzultzeko kreditua sortzea (*crédito de restitución*). Ondasuna itzultzea ezinezko bada, kalteordaina eman beharko da (LC 73.1 art.).

Masaren murriztapena. Zordunaren edukitzepean egon daitezke zenbait ondasun bereak ez direnak eta hauek ez dira erabiliko hartzekodunei ordaintzeko. Titular legitimoek ondasun horiek masatik banantzeko eskubidea dute, administrazioari hala eskatuaz (LC 80 art.).

Banandu daiteken ondasuna hirugarren bati transmititu bazaio (ad. saldu) eta errebeindikatu-ezina bada, ondasunik gabe geratu den titularrak aukeratu ahal izango du: 1) kontraprestazioa (ad. prezioaren ordainketa) berak jasotzea, egitear baldin badago edota 2) konkurtsok berari kreditu-eskubidea aitortzea, ondasunaren balioa eta dagokion interes legalarekin (LC 81 art.).

Masaren kontrako kredituak dira konkurtsok sortzen dituen gastuen ondorioz sortutakoak eta, ondorioz, masaren kontura ordaindu beharko dira (LC 84 eta 154 art.). Kengarriak dira aurretiaz (*prededucibles*). Gastu horiek dira: prozedurazko gastuak eta administrazio-gastuak batik bat. Horiei gehitu behar zaizkie beste gastu batzuek: langileen soldatak (konkursok-deklarazioaren aurreko 30 egunei dagozkienak, profesio-arteko gutxienezko soldataren bikoitzaren mugarekin), zorduna eta bere familiaren mantenua, jarduera ekonomikoa burutzeko beharrezko direna, e.a. Kreditu hauek konkurtsotik kanpo geratzen dira. Ez dira hitzarmenaren objektu izango eta likidazioa hasi aurretik kendu egin begarko dira (LC 154.1,2 art.).

¹ Oharra: Gai honen inguruan badira arau bereziak, zenbait egintza babesteko (Ik. LMH 10 art.)

4.6. Masa pasiboa

Masa pasiboa osatzen dute konkurtso-deklarazioaren datan zordunaren aurka existitzen ziren kreditu-eskubideen titularrak. Hauei *konkurtsoko kredituak* deitzen zaie eta legeak esan bezala aitortutakoan (LC LC 85, 86, 87 art.) *konkurrenteak* izango dira. Konkurstoko administrazioari dagokio hartzekodunen zerrenda osatzea. Horretarako konkurtso-deklarazioaren autora joko dute eta, horretaz gain, falta diren hartzekodunek zerrendan sartzea eskatuko diete.

Gero, zerrendan jasotako kredituak sailkatu egiten dira hiru kategoriatan (LC 89 art.): *pribilegiadunak* (LC 90, 91 art. Hauetariko batzuek beren bermea modu banaduan exekutatzeko eskubidea dute, LC 56, 57 art.); *arruntak (ordinarios)* eta *menpekoak (subordinados)*, LC 92 art.). Sailkapenak ondorioak ditu. Konkurtsoa hitzarmen bidez amaitzen bada, pribilegiadun kredituen hartzekodunak hitzarmenari atsekiturik geratuko dira soilik bere edukia expresuki onartu baldin badute (LC 123.2, 134.2 art.). Menpeko kredituenak, berriz, kreditu arruntentzako jasan beharko dute eta itzarote luzeagoa oraindik (LC 122.1, 134.1.II art.). Konkurtsoa likidazioarekin amaitzen bada: lehenik pribilegiadun kredituak ordainduko dira legez adierazitako ordenean; gero kreditu arruntak prorrata eginez eta, azkenik, posible bada, menpekoak ordainduko dira legez ezarritako ordenean (LC 155 art. e.o.).

5. KONKURTSOAREN KALIFIKAZIOA

Konkurtsoarekin kalifikazioa ez da beti egiten, kasu batzutan baizik: 1) likidazio fasea ireki behar bada edota 2) hitzarmenean hartzekodunentzat kredituen herena baino baino gehiago kentzea (*quita*) edo hiru urte baino gehiago itzarotea (*espera*) erabakitzen bada (LC 163.1 art.). Orduan konkurtsoa kalifikatu egingo da: ezustekoa (*fortuito*) ala erruzkoa (*culpable*). Kalifikazioak ondorio zibilak ditu soilik, ez du ondorio penalik. Baina zordunarentzako ondorio bereziak ditu konkurtsoa erruzkoa kalifikatzeak (LC 164-166 art.).

Erruzkoa kalifikatuko da kaudimengabezi egoera sortzea edo okerragotzea zordunaren edo bere bere ordezkari, administratzaile edo likidatzaileen dolo edo erru astunagatik izan bada. Kalifikazio hori errazteko legeak supostu batzuk adierazten ditu, *iuris et de iure* presuntzio batzuk, zordunaren kontrako frogarik onartzen ez dutenak:

- Kontabilitateari buruzko legezko obligaziotan urrapen larriak izatea, kontabilitate bikoitza eramatea edota ondaretar egoera nahiz finantzieroa ulertzeko irregulartasun nabarmenak egitea
- Konkurtso-eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuetan oker larriak agertzea edo dokumentu faltsuak izatea
- Zordunak hitzarmena ez betetzeagatik likidazio-fasea irekitzea
- Zordunak ondasunen altxamendua egitea edota enbarguren bat galerazteko egintzak burutzea
- Konkurtsoa deklaratu aurreko bi urtetan zordunaren ondaretik iruzurrez ondasunak edo eskubideak ateratzea
- Konkurtsoa deklaratu aurretik zordunak gezurrezko ondaretar egoera baten itxura egitea

Horiez gain, badira zordunaren dolo edo erru astunaren beste presuntzio batzuk (*iuris tantum*) kontrako froga onartzen dutenak:

- Konkurtso-eskaera eginbearra ez betetzea
- Konkurtsoko epailearekin eta administratzaileekin ez kolaboratzea
- Konkurtsoa deklaratu aurreko hiru ekitaldietan kontabilitatezko zenbait eginbehar ez betetzea: urteko kontuak egitea, auditoria, urteko kontuen gordailua.

Konkurtsoa erruzkoa kalifikatzeko egintzak burutzen lagundu dutenak *konplize* izango dira. Erruzko kalifikazioak ondorioak ekarriko ditu zordunarentzat baita hauentzat ere. Batetik, desgaitasuna (inhabilitación) besteren ondasunak administratzeko, ordezkari izateko eta merkataritzan jarduteko (2-15 urte bitartean). Bestetik, hartzekodun moduan konkurtsoan izan zezaketen edozein eskubide galtzea, ez bidez lortutako ondasun eta eskubideak itzuli beharra eta kalte-ordaina. Azkenik, pertsona juridikoen kasuan, bada erantzukizun berezi bat konkurtsoa deklaratu aurreko bi urtetan administratzaile edo likidatzaile izan direnentzat. Konkurtsoko hartzekodunei masa aktiboaren likidaziotik jasoko ez duten kreditu-zatia ordaintzera kondenatuak izan daitezke (LC 172.3 art.).

6. KONKURTSOAREN AMAIBIDEAK

Behin masa aktiboa eta pasiboa zehaztu ondoren, hartzekodunei soluzioren bat emateko bi bide daude: 1) hitzarmena egitea, hau da, zorrak kendu eta itxaron beharra erabakitzea eta 2) likidazioa, konkurtsoko masa aktiboa dirutan bihurtu eta ordaintzea, legez ezarritako ordena jarraituz. Zordunak likidazioa inposa

dezake (LC 142.1 art.), hitzarmena proposatzeko, ordea, baldintza batzuk bete behar ditu (LC 104, 105 art.). Zordunak likidaziorik eskatu ez badu eta hitzarmenerako proposamenik ere egin ez badu, hartzekodunek (gutxienez pasiboaren % 20 ordezkatzan dutenek) hitzarmena egitea proposa dezakete (LC 113 art.). Inolako proposamenik ez bada egiten, orduan epaileak ofizioz likidazioa irekiko du (LC 114.3, 143.1.1 art.)

6.1. Hitzarmena

Hitzarmena zorduna eta hartzekodunen arteko akordio bat da eta bere helburua zorrak murriztea eta ordainketak geroratzea da. Baina ez da akordio arrunt bat, epaileak onetsi egin behar du. Gainera, hitzarmena burutzeko prozedura zehatz bat jarraitu behar da eta arau inperatiboak edukia finkatzeko (LC 100 art.): zorrak kentzea eta itxarotea proposatuko da, muga batzuren barruan; debekatua dago likidazioa egitea edota ondasunak lagatzea edo besterentzea zorrak ordaintzeko; baina onartzen da enpresaren zati bat edo guztia besterentzea, enpresa eskuratzen duenak jarduera ekonomikoarekin jarraitzen badu; hitzarmenak ezin du kredituen legezko sailkapenik aldatu; baina onartzen da hartzekodun guztiei (edo mota bereko hartzekodunei) beren kreditua akzio edo partizipaziotan bihurtzea.

Lehendabizi hitzarmenaren proposamena egiten da. Arau inperatiboak jarraituz egindako proposamenari ordainketa-plana eta, bere kasuan, bideragarritasunezko plana gehitu behar zaizkio. Epaileak ikuskatuko ditu eta erabakiko du jarraitzea ala likidazioa irekitzea.

Gero tramitazio arrunta dator. Zordunak edo hartzekodunek (gutxienez pasiboaren % 20ak) aurkeztutako proposamena epaileak ikuskatu ondoren hartzekodunen batzarrak onartu behar du. Hartzekodun pribilegiatuek abstentzio-eskubidea dute. Hitzarmenari atsekiturik geratuko dira soilik aldeko botua ematen dutenean (LC 123 art.). Oro har, hitzarmena onartzeko, gutxienez konkurtsoko pasibo arruntaren erdiak aldeko botua eman behar du (kasu berezietan ezik, LC 124, 125 art.), bestela epaileak likidazioa irekiko du. Hartzekodunek onartu ondoren epaileak onetsi egin behar du. Tartean epea dago hitzarmenari oposizioa aurkezteko eta likidazioa eskatzeko. Epaileak dagokion erabakia hartuko du.

Tramitazio aurreratua (*anticipada*), azkarragoa eta arinagoa da eta posible da baldintza zehatz batzuekin. Batetik, hitzarmen-proposamena zordunak egin behar du (hartzekodunek ezin dute egin), beti ere legez ezarritako debekurik ez badu (LC 105 art.): 1) ezin du izan epai irmoz kondenatutako norbait jabegoaren kontra, dokumentuak faltsutzeagatik, ordena sozioekonomikoaren kontra, Ogasun Publikoaren kontra, Gizarte Segurantzaren kontra edo langileen eskubideen kontra delituren bat egiteagatik eta 2) ezin du ere, aurreko hiru ekitaldietan, urteko kontuak gordailatzearen obligaziorik inkunplitu izan. Bestetik, hitzarmen-proposamenak hartzekodunen atxikimendu partziala behar du. Bildu behar du gutxienez zordunaren aktiboaren 1/5 gainditzeko adinako hartzekodunen atxikimendua (edo 1/10 gainditzen dutenena, hitzarmen-proposamena konkurtso-eskaerarekin batera aurkeztuko balu. LC 106.1 art.). Baldintza hauekin tramitatutako hitzarmenean malgutasun handiagoa dago. Zorrak kentzeko eta itxaroteko mugak (% 50 eta 5 urte) gainditzea onar dezake epaileak, zordunak bere jarduerarekin erabat edo partzialki jarraitu ezker (LC 104.2, 100.5 art.). Konkurtsoko administrazioa eta epailea arduratuko dira hitzarmena kontrolatzeaz eta hartzekodunen onarpen espresua idatziz jasotzeaz (LC 103 art.).

Oro har, hitzarmenak efektuak izango ditu epai bidez onetsi eta gero (LC 133.1 art.). Baina gerta daiteke, kautelazko neurri bezala, efektu partzialak izatea hitzarmenaren oposizioa tramitatu den bitartean eta baita efektuak etetea ere, epaiaren aurkako apelazio-helegitea tramitatzea onartu izan bada. Beraz, hitzarmenaren efektuak epaia emandakoan hasiko dira. Derrigorrezkoa izango da zordunarentzat eta eragiten dien hartzekodunentzat. Baina horrekin ez da konkurtsoa amaitzen. Amaituko da hitzarmena erabat betetakoan (LC 141, 176.1.2 art.).

Hitzarmenak ez du eraginik *masaren kontrako kredituengan*, bai ordea bideragarritasun-plana finantzatzeko zordunari ematen zaizkion kredituengan, nahiz eta konkurtso-deklarazioaren ondorengoak izan (LC 154.2, 100.5 art.). *Konkurtsoko hartzekodunei* dagokienez, egoera desberdinak daude. Hitzarmenak eragina du *kreditu arruntengan* eta *kreditu subordinatuengan*. Azken hauek, gainera, gehiago itxaron beharko dute (LC 134.1.II art.). Baina *kreditu pribilegiatuengan* eragina izango du soilik hartzekodunek proposamenari aldeko botua ematen diotenean.

Hitzarmenaren ondorioz, eragiten dien kredituak portzentai batetan murriztu egingo dira (*quita*) eta denbora bat itxaron beharko dute galdagarriak izan daitezten (*espera*) (LC 136 art.). Dena den, efektu hauek desagertu egingo dira hitzarmena betetzen ez bada eta horrek suntsiarazpena (*resolución*) ekarriko du (LC 140.4 art.). Epailleak onartutako hitzarmenean zordunari zenbait mugapen jarri ahal zaizkio administraziozko eta xedapenezko egintzak burutzeko. Gainera aldiro epaileari kunplimenduari buruzko informazioa emateko obligazioa du. Hitzarmena erabat bete duela ikusten duenean, dagokion txostena aurkeztu eta kunplimendua deklaratzeko autoa eman dezan eskatuko dio. Azkenean konkurtsoaren amaierako autoa (*auto de conclusión*) emango du epailleak kunplimenduzko autoa irmoa denean eta inkunplimendua deklaratzeko akzioen kaduzitatezko epea betetakoan (LC 137-141 art.). Aldiz, inkunplimendua deklaratzeko hitzarmenaren suntsiarazpena ekarriko du eta, ondorioz, likidazioa irekitzea (LC 143.1.4,5 art.).

6.2. Likidazioa

Likidazioarekin zordunaren eskubide eta ondasunak dirutan bihurtuko dira hartzekodunei ordaintzeko. Likidazioa izan daiteke *borondatezkoa*, zordunak eskatutakoa, ala *nahitaezkoa*, hitzarmenik onartu ez bada edo huts egin badu. Kasu hauetan hasiera emango zaio alderdien eskariz (zordunaren edo hartzekodunen eskariz) edota epailleak ofizioz (LC 142, 143 art.).

Likidazio-fasean konkurtso-deklarazioaren efektuak mantendu egiten dira. Gainera, fase hau irekitzea beharrezkoa da, zorduna pertsona juridikoa denengan konkurtsoa erruzkoa kalifikatu ezker, administratzaile eta likidatzaileei defizita estaltzeko zigorra ezarri ahal izateko (LC 172.3).

Konkurtsoko administrazioa arduratzen da likidatzeko operazioak egiteaz, epailearen ikuskaritzarekin. Likidazioa egiteko bi bide daude: likidazio-plana egitea eta onartzea ala, bestela, legezko arau supletorioak jarraitzea (LC 148, 149 art.). Hauek aplikagarri dira, baita ere, likidazio-planaren osagarri moduan. Edozein modutan, badira zenbait arau inperatibo (LC 150-153 art.).

Likidazioaren helburua kreditua aitortu zaien hartzekodunei ordaintzea da.